

Alzheimer eta dementziaren inguruko formazioen balorazio oso positiboa egin du Lea Artibaiko Amankomunazgoak (2018ko maiatza-ekainean burututakoak)

Afagi-k eta el Futuro es la memoria-k antolatuta, eta Lea-Artibai Amankomunazgoak lagunduta formazio saio bereziak egin dira Ondarroan Alzheimerra eta dementzia lantzeko maiatzetik ekainera bitarte. Deba Barrenako Amankomunazgoak, Ondarroako Udalak, Debako Udalak, Eibarreko Udalak eta Mutrikuko Udalak ere lagundu dute ekimenean.

Ekimena oso arrakastatsua izan da Amankomunazgoarentzat, izan ere 15-20 lagunek parte hartu dute saio bakoitzean. Bost astetako ikastaroa intentsiboa izan da, ostiral eta larunbatero izan delako, eta horregatik emaitza oso kontuan hartzekoa dela uste du Rakel Elu Bengoetxea Lea Artibaiko Amankomunazgoko lehendakariak.

Gaiak askotarikoak izan dira, eta horrek asko aberastu du prozesua: Dementziak eta familia: Komunikazioa Dementia duten pertsonekin. Nola jokatu portaera nahasteak daudenean, Psikoestimulazioa eta terapia osagarriak, Zaintzaren antolaketa eta Baliabide Sozioasistentzialak, Elikaduraren garrantzia eta osasun zaintzak gaixotasunaren fase desberdinetan eta Laguntza produktuak eta jarrera tratamenduak izan dira, besteak beste jorratutako gaiak.

Ondarroako taldeak neguan jarraituko du, eta Amankomunazgoak esperientzia errepikatu nahi du gainontzeko herrietan. Izan ere, menpeko egoeran dauden pertsonak zaintzen dituzten herritarrentzat formazioen filosofiarekin jarraituko du amankomunazgoak.